



232. zenbakia

IRAILA 2023

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



AUZOAN

Auzoan
hurrek soilik jaten
diote ogiari kurruskua, apurrak
ateetako markoetan iltzatuak daude eta

plazan andre zaharrak kontu
kontari bart gaueko iskanbilari
buruz eta gauza baten eta
bestearen artean Peneloperen senarra nondik ote
dabilen galdetzen du batek, besteak bizirik
al dagoen erantzun

eta momentu batez lasai dago auzoa,
ahaztuta uda bukatu dela, udazkena
hasi arteko tarte horretan bizi direla beti

zorriak iraungi dira eta, nola
denboraren bertikaltasunari beldurra dioten,
dutxako ileak ez ditu kendu inork oraindik.



Fast Fatum. Susa, 2023

 Libe Goitia Artetxe

Hautatu




3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

komunikazioa



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarte, Lourdes Iraizotz, Luis Mariñelarena eta Joxe Jabier Elizalde.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Atezko eguna. Egilea: Josemari Larrañegi

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira irailaren 14ean bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Esan Erranek 25, dokumentala*

07

Ingurumena. *Eltxoa*

08

Kronika. *Denok bat*

10

Albisteak.

15

Berezia. *Anueko apezari omenaldia*



16

Gure historia. *Gerra artean, kontrabandoan*

20

Elkarrizketa. *Rafa Zubiria, Ultzamako galtzada erromatarra*

23

Ardo Frexkoa. *PSN: errespetua zor digu*

24

Aspaldiko Kontuak. *Herrietako kontutxoak*

26

Eskutitza. *Tomasa Oartzumen omenez*

28

Kirola. *Boxeoa*

30

Zer ikusi *amezti.eus-en*

32

Jaiotzak eta heriotzak. *Ekaina eta Uztaila.*

34

Zer irakurri.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Grabatzen, grabatzen...

Esan Erran irratiaren 25 urteak, dokumental batean jasota

'Elkarrizketatuak, prest? Kamera, prest? Grabatzen!'. Udako hilabeteotan behin eta berriz errepikatzen ari garen esaldia da aurrekoa. Bai, badakigu irratia ahots, soinu, musika eta isiltasunek egiten dutela, baina Esan Erranen 25. urteurrena aitzakia hartuta, urteotako ibilbide sonoroari irudiak jartzeko lanean ari gara. Aritz Gorostiaga dokumentalgile imoztarraren gidaritzapean, mende laurden honetako irratiko istorioak eta bizipenak jasotzea da ikus-entzunezkoaren helburua. Urte amaierarako aurkeztea da helburua, ikusiko dugu ea betetzeko gai garen...

1998ko abenduaren 20an entzun zen Esan Erran irratiaren lehenbiziko emisioa, FMko 107.9an. Lehen emisio hura posible egiteko, baina, lan handia zegoen aurretik egina, eta nabarmentzekoa da eskualdeko herritar askoren inplikazioari esker lortu zela tokiko irradi euskaldun haren ametsa errealitate bihurtzea. Baina, nondik sortu zen irratia martxan jartzeko ideia? Zein ziren hastapeneko helburuak eta erronkak? Hori guztia gogora ekartzea eta urteotan modu batean edo bestean irratiaren bueltan aritu diren kideen lekukotzak jasotzea da dokumentala sortzearen asmo nagusia.

Protagonistekin lehen hitzordua abuztuaren 3an jarri dugu, Jauntsaratsen, Esan Erran irratiaren estudioan bertan. Irratia martxan jartzeko euskara batzordeetan parte hartu zuten hainbat kide eta garai desberdinetako esatariak bildu gara lehen grabaketa egun horretan. Guztira, sei elkarrizketa grabatu ditugu. Lehen hitzordu haren kronika moduko bat eginen dugu erreportaje honetan.

Nostalgia pittin bat

Irrati proiektuaren bultzatzaileetako bi izan ziren Ricardo Igoa Axi eta Arantxa Puignau, beste kide askorekin batera. Duela 25 urte Ultzama aldean testuingurua zein zen azaldu digute, nola euskararen aldeko mugimendua bizi-bizi zegoen, nola mugimendu horren bueltan sortu zen irratiaren ideia ere. Baziren zenbait urte Pulunpe aldikaria martxan zela, eta, nolabait, horren jarraipen moduko bat izan zen irratiaren proiektua ere.

Bultzatzaileekin batera, Esan Erran irratiko lehendabiziko bi esatariak ere hurbildu dira dokumentalaren lehen grabaketa egunera: Txari Eleta eta Fermin Gartxitorena izan ziren irratiko lehen ahotsak. Basaburuko udalaren ganbaran kokatua dagoen estudioa sartzean, biek ere antzeko sentazioak izan dituzte: oroitzapen ederrak –eta ez hain ederrak ere bai–, nostalgia pittin bat... "Berdin-berdin jarraitzen du ganbara-estudioak", diote esatari ohi gehienek.





Ion Orzaiz eta Ainara Urritza esatari izandakoak ere batu dira hitzordura. Duela ia 20 urte aritu zen irratiaren lehena, 2004an; eta urte batzuk geroago bigarrena, 2010eko eta 2011ko udetan. "Karrera bukatu berria nuen, eta nire lehendabiziko soldatapeko lana izan zen Esan Erranekoa, garrantzitsua izan zen niretzat", gogoratu du Orzaizek, gaur egun Berria egunkariko kazetaria denak.

Datozen hilabeteetan jarraituko dugu esatari ohi eta irratiaren bueltako pertsona gehiagorekin elkarrizketak egiten eta irudi zaharrak biltzen. Asmoa, irratiaren 25. urteurren borobila izanen den abendurako dokumentala prest izatea da. Ea garaiz iristen garen. Bitartean, hona hemen lehendabiziko elkarrizketa horiek utzitako zizkamizka txiki bat. On egin!



Ion Orzaiz

2004an esatari

"Beldurtuta sartu nintzen Esan Erran irratiaren, nire lehen lana izan baitzen, karrera amaitu berritan, eta ez nuen aurretik irratsaio baten ardurarik inoiz izan. Ez nekien mahaia nola erabiltzen zen, eskualdea ere ez nuen gehiegi ezagutzen... Eskerrak beste lankide batzuekin aritu nintzen. Tania Arriagarekin hasi nintzen lehenbiziko hilabeteetan, hark erakutsi zidan denak nola funtzionatzen zuen, eta bere lanari segidan eman nion gero nik".

"Udan, Iñigo Astizekin batera egiten nuen magazina. Iñigok ideia zoro asko izaten zituen, erreportajeak egitera ateratzen zen kanpora minidisc-arekin, bertsowarriors izeneko atal bat ere egiten genuen... bertsolariak AEBetako borroka libreko jokalaria balira bezala elkartzen genituen, musikarekin nahasketa eginez, tonu amerikarra emanez... nik uste, baliabide gutxirekin ere, irudimena erabiliz, irrati ona egin zitekeela ikasi genuela".



Ainara Urritza

2010 eta 2011n esatari

"Jendeari beti kostatu izan zaio telefonoa hartu eta irratiara deitzea, parte hartzea. Nik ere pentsatzen nuen batzuetan, 'ba ote dago norbait hor, irratiaren beste aldean?'. Baina, bestetik, zortea ere izan nuela uste dut: entzule batzuek deitzen zuten kantaren bat eskatzeko, edo agurtzeko, edo norbait zoriontzeko... Uste dut herritarrek ere eskertu zutela eskualdeko norbait aritzea hor lanean, gertutasun hori".

"Uste dut horrelako tokiko irrati batek jendea elkartu egiten duela, gertutasuna eman, ezagutarazi zer dagoen Ultzaman, zer Lantzen, Anuen, bertako jendearen istorioak kontatu... nolabait, lotu egiten du. Azkenean, eskualde zabala eta handia da hau, eta ez da erraza denetara ailegatzea. Baina uste dut, elkartze horretan eta komunitatea egiten laguntzen duela".



Grabatzen, grabatzen...



Txari Eleta

Irratiaren bultzatzaileetako, eta lehenbiziko esataria

“Gogoratzen naiz hasierako eztabaida haiez, irratia euskara hutsez izan, edo elebitan... ni garai hartan AEKko irakasle nintzen Olaguen, eta bazegoen euskaltzaleen mugimendua. Niri, orduan, erran balidate erratari izanen nintzela, ez nuen sinistuko!”.

“Batzordeetan hasi ginen komentatzen, ea nor izan zitekeen errataria, ez genuen inor topatzen... eta azkenean, norbaitek esan zidan, 'zergatik ez zara zu animatzen?' Eta, begira, azkenean, ausartu egin nintzen!”.



Fermin Gartxitorena

Lehenbiziko esataria

“Hastapenak zailak izan ziren, apenas materialik ez geneukan, mahaiarekin ere sekulako arazoak izaten genituen... Azkenean, taberna baterako moduko mahi txiki bat genuen, baina hemen elkarrizketak eta horrelakoak telefonoz egin ahal izateko ez zuen ongi funtzionatzen. Askotan besteak ez zigun ongi entzuten... baina, tira, sinesten genuen egiten ari ginen horretan, eta aurrera!”.



Arantxa Puignau

Irratiaren bultzatzaileetako, eta gerora esatari izana

“Irratiaren 10. urteurrena gogoan dut: Maitane Burusko eta biok ari ginen lanean, baina jende asko genuen inguruan. Kiroldegian urteurren festa egin genuen, jende pila bat aritu zen lanean, eta Aralar irratiako eta Belexekoak ere etorri ziren zuzenean esatari lanetan aritzera. Herri kirolak, Basaburuko fanfarrea, punta-puntako bertsolariak, herri afaria... izan genituen, eta kiroldegia bete egin zen”.



Ricardo Igoa, Axi

Irratiaren bultzatzaileetako bat

“Auzolan asko egin ziren garai hartan, kuadrilla handia elkartzen zen beti. Antena jartzeko, esaterako, han elkartu ginen Berueteko goiko txabolan, igeltseroak eta beste talde bat, guztia muntatzeko. Lan handia zen, baina gustura aritzen ginen, giro polita baitzegoen. Irratiaren antena, berez, argindarraren poste bat da, ez da bereziki irrati postea. Larrantzarko batek oparitu zuen hori ere. Eta Berueteko tokia ere partikular batena zen, utzi egin zuen. Jende askok jarri zuen bere alea irratia martxan jartzeko”.



Udako gauak aztoratzen dizkigun piztia txiki hori

Bzzzz... uda partean ohikoa izaten da gauean ezin loak hartzea, belarri ondoan eltxo bat bueltaka dabilela sumatuta. Ziztadek, normalean, hazkura pixka bat besterik eragiten ez badute ere, eltxoak munduko animalia hilkorrenen artean daude, infekzio-gaixotasun askoren transmisoreak baitira. Dena dela, ez gehiegi larritu... munduan existitzen diren milaka eltxo motetatik gutxi batzuei soilik gustatzen baitzaie gizakien odola

2.500 eltxo mota baino gehiago daude planetan, eta Antartidan izan ezik, munduko toki guztietan dago horietako motaren bat. Izan ere, egoera eta ingurune berrietara egokitzeko gaitasun ikaragarri handia du eltxoak. Horietako zenbaitek intsektiziden aurrean erresistitzeko gaitasuna garatua dute, eta beste batzuek haien portaera aldatu dute eltxoen kontrako sareak ekiditeko -etxeetatik kanpo elikatuz, esaterako-.

Ur geldietan jartzen dituzte eltxoek normalean arrautzak, eta horien larbak jaiotzean, uretan mantentzen dira hasiera batean, organismo txiki-txiki elikatuz. Behin helduean, uretatik ateratzen dira elikagai bila. Beroa eta hezetasuna gustuko dute animalia txikiok.

Iberiar penintsulan, hiru motakoak ohikoenak

Ohiko eltxoa (*Culex pipiens*) da Iberiar penintsulan gehien dagoen mota. 5 eta 8 milimetro artean neurtzen ditu, eta 100 eta 200 arrautza inguru jartzen ditu aldiko, uraren gainazalean. Uda garaian arrautza>larba>pupa>heldua zikloa 15 bat egunetan egiten dute. Iluntzean eta gauean ateratzen den eltxoa da hau, eta giza jarduerarekin estuki lotua dago.

Tigre-eltxo (*Aedes albopictus*) da bigarren mota. Aurrekoa baino zertxobait txikiagoa da hau, 4-6 milimetro inguru neurtzen ditu normalean. Oso erraza da gainerako eltxoetatik desberdintzea, torax erdian lerro txuri bat izaten baitu, burura luzatzen dena. Hortik 'tigre'

izena. Egunez ibiltzen da gehienbat eltxo mota hau, eta ez du etxeetan sartzeko ohitura handiegirik. Bere ziztadak aurrekoarenak baino mingarriagoak dira, eta sukar horia, dengea eta beste zenbait gaixotasun transmiti ditzakete.

Anopheles eltxoa da hirugarrena. Berezitasun bat du eltxo mota honek: hegoetan marka ilunagoak izan ohi ditu. Emeek odol ahoratze bakar batekin 50 eta 150 arrautza artean jar ditzakete, eta helduko zikloa, kasu honetan, 6-10 egunen artean osatzen da.

Ba al zenekien...?

-Eltxoek hortzen antzeko 47 dentikulu izaten dituzte, azala zulatzeko erabiltzen dituztenak.

-Eltxo arrek ez dute ziztatzen. Emeek, arrautzak jarri ahal izateko proteina konkretuak behar dituzte, odolaren bidez jasotzen dituztenak. Arrak, berriz, loreen nektarrarekin eta bestelako azukre iturriekin soilik elikatzen dira

-Oso bizitza-ziklo motza dute eltxoek: 10 egun eta hilabete baten artean bizi dira

-Euriaren eraginaren egin dezakete. Hain gorputz masa txikia izanik, euri tantek zeharkatu egiten dituzte, tantak lehertu gabe



▲ *Anopheles eltxoa*



Udan ere, gelditu gabe: bazkaria, txangoa eta ikastaroa

Hilero bezala, egindakoaren kronika bidali digute Denok Bat jubilatuen elkartetik. Udan ere, ezin gelditu ibili dira: kalderetea Ultzaman, Zarautz eta Getariara txangoa, eta gimnasia ikastaroa!

Aurreratu genizuen bezala, uztailaren 5ean kalderetea genuen, aurtan Lizasora joan ginen. Kuarteleneko frontoian egiteko asmoa genuen baina erabilera baimena eguneratzekoa zeukanez, kontzejuak ezin izan zigun baimenik eman. Baina ondoko Egain elkarteak, utzi ziguten, adeitsuki, bere elkarte erabiltzea egun horretarako. Goizeko 10:00etan zen hitzordua sukaldari eta laguntzaileentzat, eta elkarteko atzeko aldean, kanpoan, egin ziren kaldereteak, aurtan hiru, eta gosariak. Eguerdirako dena prest zegoen, baita mahaikideak ere, 64 bildu ginen, elkarteko tamañan. Gustura jan ziren mahaira ateratakoak. Bazkalondoren, batzuk tar-tar-tar mundua konpontzen, beste batzuk kantari eta nola ez, mus partidak ere izan ziren.

Merienda pixka bat egin ondoren, etxe aldera abiatu ginen, egun ederra pasa genuelako sentsazioarekin. Eskertzekoa

elkartek egin zuena eta batez ere gure artean ziren 7 bazkideei, Lizasokoak, beraiek egin baitzuten kafe eta edarien zerbitzatzeko lana.

Uztailaren 26an, Amaia Villabona Beunzak eskainitako hitzaldia izan genuen, Gimnasia kontzienteari buruzkoa, hau da, kate muskularren luzaketekin eta gorputzaren potentzialarekin lan egiteari buruzkoa.

Gaia interesgarria zela ikusi zenez, abuztuaren 30ean saio praktikoa egin zen; eta, egon zirenek, urtean zehar ere ikastaroa antolatzeko eskatu ziguten.

Abuztuko txangoa Zarautz-Getariara izan zen, hilaren 29an. Goizeko 11:00etarako Zarautzen ginen, nahi zutenak bertan gelditu ziren, besteak Getariara joan ginen, goiza pasa.

Ordu baterako denak Zarautzen barna genbiltzan, batzuek oinez etorriak Getariatik besteak

autobusez. Zarautzen ederki bazkaldu ondoren herria ikusten ibili ginen eta 19:30ean autobusak hartu eta etxera itzuli.

Urrian, ikastaroak hasiko dira, eta Larrunerako txangoa izanen dugu. Datorren alean kontatuko dizuegu gertatutakoa. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



**Denok Bat
Jubilatuena Elkarte**



Autobusaren zain, bazkaltzera joateko, Getaria ▲



Hondartza ondotik paseoa, Zarautzen ▲

IX. ARGAZKI LEHIAKETA

1. SARIA: 300€

2. SARIA: 200€

3. SARIA: 100€

BEDERATZIGARREN ARGAZKI LEHIAKETA

Ametza Elkarteak BEDERATZIGARREN argazki lehiaketa eginen du aurten.


Hemen bizi den edozeinek hartu dezake parte eta originalak igortzeko epea **urriaren 20an** bukatzen da.

Aurten ere fotografia gaia zabala da, baina zerbait mugatu dugu.

Paisaia soilak ez dira onartuko. **Jendea, bertako lanak, kirolak...** denetatik, baina paisaiak soilik ez.

Ea animatzen zareten, gu sariak banatzeko prest gaude eta.

OHARRA: Informazio gehiago, amezti.eus agerkarian.



Carrefour
express

Zugandik gertuago

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

9'00 - 20'00

LARUNBATA ETA IGANDEA

9'00-14'00 / 16'00 -20'00

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8

31867 Aroztegi - Atezko Ibarra

IZARPE KANPINA



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Goi Erdi Aroko nekropoli baten aztarnak, Auzan?

Goi Erdi Arokoak izan zitezkeen hamar hilobi aurkitu dituzte Auzan. Abuztuaren 22an aurkitu ziren eta Aranzadiko arkeologo Daniel Ruiz Gonzalezek egin zuen lehenengo azterketa.

Ondoren, abuztuaren 25ean, Ultzamako udalak baieztatu duenez, bilera egin zuten kontzejuak eta udalak Aranzadi elkartearekin eta Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea erakundearekin. Azken honek 900. eta 1000. urteetan kokatu ditu aztarnak, baina, ez du ikusten gehiago ikertzearen beharra. Udalak eta kontzejuak, ordea, bertan lurperatutako arbaso hauen inguruan gehiago jakin nahi dute eta agertutako gorpuzki bat ikertzeko lanak bultzatuko dituzte. Gainontzeko arrastoak ongi markatu eta babestuko dituzte, denborarekin kaltetu ez daitezen.

Aztarna arkeologikoak Auzako frontoiaren atzealdetik pasatzen den bidean aurkitu dira, Suarbera doan bidean. Pista hobetzeko eta hormigoia botatzeko lanak egiten ari dira, eta, obren zuzendaria den Igor Erbiti Salazar mendi ingeniariak aurkitu zituen. Erbitik bi hilobi ziruditenaren arrastoak ikusi zituen, eta, bietako batean, aztarna antropologiko argiak ikusten ziren. Zehazki, buru-hezur bat, pelbisekoak eta bestelako hezur luzeagoak.

Horrela, berak eta Auzako kontzejuak deituta, Aranzadi Zientzia Elkarteko Daniel Ruiz Gonzalez historialaria eta arkeologoa bertaratu zen, asteartean bertan, aztarnak aztertzeko. Bi hilobi horietaz aparte, beste zortzi hilobiren aztarnak baieztatu ditu Ruizek. Bere txostenean irakurri ahal izan dugunez: "ehorzketen eredia eta hilobien tipologia ikusita, baita taldekatzeko moduarengatik, zenbatekoarengatik eta orientazioarengatik ere, posible litzateke aztarna hauek Goi Erdi Aroko momenturen



aurkitutako buru-hezurra. ▲

batean kokatzea". Hala ere, Ruizek azpimarratzen duenez, beharrezko probak egin aurretiko behin-behineko hipotesi gisa soilik hartu beharreko ondorioak dira hauek.

Lehenengo begi-bistako azterketa hauen arabera, "Auzako (edo beste herri bateko) herriguneari lotutako Goi Erdi Aroan abandonatutako edo gaur egungo Auzan birkokatutako herrigunea izatea". Hilobiek ekialde-mendebalde orientazioa jarraitzen dute eta, dirudienez, kristau erritoaren arabera lurperatu dira. Esan bezala, behin behineko hipotesiak dira hauek, eta, Ruizek txostenean adierazten duenez, informazio hau guztia kontrastatu beharko litzateke indusketa zabal batekin eta arrastoen eta dokumentazioaren ikerketa sakon batekin.



Aurkitutako hilobiak ▲



Auzolana, Aizarotzen

Abuztuaren 13an herriko egur lotea txikitzeko auzolana izan zen Aizarotzen. 30 bat lagun bildu ziren lanak osatzeko, adin ezberdinetakoak. Tresnen laguntza ere izan zuten: bi motozerra, bi gurdi garraiorako, egurra txikitzeko makina hidraulikoa eta zortzi bat aizkora.

Urtero egiten den auzolana da, erretokian erabiltzeko egurra txikitzen baita, pestak eta bestelako ospakizunak egiten direnerako. Ostatua berotzeko erabiltzen den egurra ere bada.

Lanak bukatuta, bazkaria egin zuten erreka ondoan: orkatza, ardi zaharra eta txerriak, guztia, entsaladaz lagunduta. Gainera, bazkaria bukatuta, sandia bat pasatu zuten eskuz esku, haren pisua asmatzeko asmoz. Leire Andoainek eraman zuen saria, hau da, sandia; baina guztion artean jan zuten. Esan digutenez, ederra zegoen.



Lanak bukatuta, bazkaria egin zuten erreka ondoan. ▲

EUSKARA ZURI DEIKA

EL EUSKERA
TE ESTÁ LLAMANDO

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

IPARMANK
Nafarroa Iparraldeko
Euskara Mankomunitatea

**IMOTZ-BASABURUAKO
EUSKALTEGIA**

euskara ikastaroak / cursos de euskera

Maila guztiak
Todos los niveles

Ordutegi malguak
Horarios flexibles

**Talde presentzialak /
Autoikaskuntza**
*Grupos presenciales o
Autoaprendizaje*

**DIRU-LAGUNTZAK
BECAS**

948610776 - 699704951
leitza@ikaeuskaltegiak.eus

euskara errazago egiten



Jende pila bildu zuen aurten Atezko egunak

Uztailaren 29an izan zen, Beuntzan. Egitarau zabala antolatu zuten bailarako gazteen inplikazio eta laguntzarekin. Beuntzako Maitane Iturralde Egozkue: "Bilera deitu zen eguna antolatzeko eta, egia esanda, jende gutxi agertzen da bilera horietan, betiko jendea bakarrik. Niri pena ematen dit. Gazte gehiagorekin hitz egin nuen, eta egitaraua lotzen jarri ginen".

Bailararen egunaren aurretik Frontenis txapelketa bat sortu zen, eta finala Atezko egunean izatea erabaki zen. Gainera, Ultzamako kuadrillen arrakastaren ondoren, bertan parte hartutako bi taldeen arteko desafioa ere izan zuten: "Oso borrokatua izan zen, politt-politta".

Musika ere izan zuten, egun osoan: "Gure aurrekontua ez da oso zabala, eta, beraz, ezin dugu jende ezaguna ekarri, baina bazkalostean akordeoilari gazte batzuk ekarri genituen, eta jendea oso gustura gelditu zen; eta, gauean DJ Gaztemusic. Inoiz baino giro politagoa

izan zen gauean, Atetzen ez baikaude jende asko. Ilusio handia egiten du Atetz bezalako bailara batean hainbeste jende ikusteak".



Atezko eguna ▲

Herriko adinduei omenaldia egin diete Gerendiainen

Joan zen ekainaren 21ean izan zen ekitaldia Gerendiainen. Ekitaldi xume bezain polita izan zen.

Hain zuzen ere, kontzejuak antolatuta, herriko adinduek bapo bazkaldu zuten ostatuan eta zapiak jaso zituzten. Adinduak kontuan hartu beharko genituzke, besteak beste, haiengatik garelakoz, eta ahozko tradizioaren bitartez asko jaso dugulako.

Bestalde, herriko ordezkariak egiten ari diren lana txalotu nahi dugu, denak kontent edukitzea zaila baita.

Berriki Aizal izeneko dermioan, *Iturzar, fuente vieja*, iturria errekuperatzeko lanak hasi ziren.

Argazkian ageri diren horietako batzuek, makina bat joan-etorri eginak dituzte, bai, iturzarrera.

Zorionak!



Joxe Jabier



Adinduei omenaldia ▲

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko

a tu lado,
para llegar lejos

aek
euskara praktikoa



Utzamako AEK

Maila guztiak · Todos los niveles

Guraso taldea 5/6 ordu astean

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa

SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)

Taldea edo autoikaskuntza · Grupo o autoaprendizaje

Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)

Izena eman irailaren 23a baino lehen

Matricularse antes del 23 de septiembre

Informazioa eta izena ematea · Información y matriculación

948 60 47 04 edo 607 622102

larraun@aek.eus

Utzamako AEK euskaltegia · **Larraintzar**



DIRULAGUNTZAK / BECAS

Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak



iritzia



*Itzea Urkizu Arsuaga
Berria*

Sekretutxo bat

2023ko abuztuak 29

Kontatu nahi nizuke zorionsuetan zorionsuena izan zela 2023ko uda hura. Indarrez emaniko musuek ez zutela ziztaden, ukituen, talde-bortxaketen déjà vu-rik berraktibatu. Hurrei haur izaten utzi zizuetela, eta igerilekuan ez genuela ume aludunik ikusi behar izan etorkizunean izango zituen titiak estalita, sexualizatutako bainujantzia soinean.

Esan nahi nizuke uda hartan aitzakiarik gabe zukutu nituela biontzat bakarrik geratuko zitzaizkigun azken asteak. Ez nintzela neure onetik atera behar baino gehiagotan; tenple eta goxotasun izugarritz erantzun niela zure beldurrei, zure egonezinari, zure kasketaldiei. Aitak uda osoa lanean pasa zuela-eta, ez nuela dramarik egin lehen munduko arazotxoetatik. Hori zatekeen uda hartako postal ideala.

Baina, badakizu zer? Abuztu hartan, neure burua autoexijentziaren latigoarekin kolpatuz galdu nuen denbora. Itota, sabeleko haurra eta kanpoko, biok ere erdi-ipurdi zaindu zintuztedala pentsatuz. Beldurtuta, ondoren zetorrenerako nahikoa maitasun inon pilaturik ba ote nuen neure buruari galdetuz. Eta frustrazioz, ordurako banekielako egun haiek pizterako itzaliko zirela, urtebetetze-tartetako txinparta-makilak bezala, eta ni ez nintzela argi-izpi haiei merezi zuten arreta jartzten ari.

Tira, Pello, sekretutxo bat ere kontatuko dizut: abuztu hartan pribilegiatu ere sentitu nintzen, benetan zorionsu ikusi zintudalako igerian, erraldoiarena egiten edo Balearen bertsoak kantatzen. Eta aitortzatxo hau eta beste zenbait burutazio euskarazko egunkari nazionalean idazteko aukera eman zidatelako ere bai. Plazer hutsa izan zen.

Haurrendako bertso eskola jarriko dute martxan datorren ikasturtean Ultzaman

Ultzamako Udalak eta Euskara zerbitzuak **Bertso eskola, hitz eta jolasen karakola** ekimena jarriko dute martxan datorren ikasturtean, 3. eta 6. maila arteko ikasleei zuzenduta.

"Bertso eta hitzen jolasaren bitartez, euskaratik eta euskaraz gozatzeko, kantatzeko, sortzeko eta jostatzeko" helburuarekin abiatuko dute proiektua, bultzatzaileek adierazi dutenez.

Larraitzarko Bentan izanen da bertso eskola, astelehenetan. Orduategia oraindik zehazteke dago, baina arratsaldetan izanen dela adierazi dute, eta ordubete inguru iraunen dute saioek. 3. eta 6. maila arteko ikasleei zuzenduta dago ekimena. Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko, Euskara zerbitzuarekin jarri beharko da harremanetan, ezubioa@iparmank.eus helbidera idatziz edo 948 30 51 34 telefono zenbakira deituz.

Bertso eskola hasi baino lehen, **irailaren 22an, umeei zuzendutako lehen saio berezi bat** egingen da Gizarte Etxean bertan: eskolan izena emateko asmoa dutenendako nahiz beste edonorendako, bertsolaritzara hurbiltzeko aukera izanen da bertan.



Umeak, bertsoan



festa ederra

Anueko apezari omenaldia

Agustin Elizalde Apeztegia, Anueko apeza dugu, adinez gora den gizona, gorputzez ttiki antzekoa, bizia eta alaia izatez, eta serioa bere egintzetan.

Laurogeita hamar urte beteak eta oraindik ere hor dirau lanean, ahal guziaz eginez, Anueko herri guzietako parrokoa baita, eta Lanzkoa ere bai. Urtetan gora eta hala ere, osasunez, jarreraz, bizipozaz... ongi, biziki ongi. Lanean, eta ahal duen guzietan eta guzietan, mesede egiteko beti prest. Gizon honi Anueko herriek Amabirjina abuztukoan, 15ean, egin zioten omenaldia. Berak deus jakin gabe, Olagueko Andre Mariaren Ermitaren 50. urteurrena zela eta, bertan prestatu zioten dena. Urteurrena aitzaki, baina berez Don Agustini omenaldia egitea zen xede. 14 urte daramatza Anue eta

Lanzko apez eta arrunt maitatua da misiolari zaharra.

Zugarramurdiko **Joangonean** sortu zen 1933ko urtarrilaren 3an. Maistrua zuen aita. Jaunartzea Zugarramurdin egin eta 1941. urtean familia osoa Elizondora lekualdatu zen. Estankoa jarri zuten.

Bere bizitza luzean, Seminarioko Hezitzaile espirituala izan zen, Tuteran apez, borroka sindikaletan buru-belarri, Ameriketako misio lanetan Paraguaietan, Txilen eta Ekuadorren. 2001an berriz hona itzuli eta segi lanean. Bere bizitza interesgarriaz gehiago jakin nahi duenak ikus beza interneten, amezti.eus tokian.

Eta Ameriketatik noiz itzuli zinen gure artera? 68 urte bazenituen,

erretiroa hartzeko garaia.

Apezpikuak deitu zidan eta ekarri ninduen hona, Seminariora. Fernando Sebastian zen hori eta urtea 2001a.

Zazpi urtez egon zen Agustín Seminarioan Zuzendari Espirituala zela bertako ikasleei laguntzen.

Ondoren, 2008an Fustiñanara igorri zuten eta urte batez egon zen bertan, Seminarioa eta Fustiñanako parrokiako lanak, biak batera eramanez.

*2008. urtean **Artzain Onaren Egoitza** honetako zuzendariak utzi zuen kargua eta hona ekarri ninduten, eta geroztik hemen ari izan naiz lanean, Mikel Larranbepere izendatu duten artio. Eta hemengo Zuzendaritza lanez at, Anue eta Lanzko parrokiatako lanak ere egiten ditut.*

Eta horrela bukatu du nirekin elkarrizketa:

Herrian bizitzea gustatuko litzaidake, jendearekin bizi behar da, baina...

Olagueko Andre Mariaren ermitan egin zioten omenaldia

Meza ondoren, aurrekua, opariak, musika, otamena... aunitz luzatu zen omenaldia jendea oso-oso gustura baitzen. Ekitaldia benetan herrikoia eta atsegina izan zen.

Eta aipatu gabe ezin utzi: *jendearen eskerrona, poza eta adiskidetasuna bihotzez eskertu dituela* -hori erran digu misiolari zaharrak.

Mezua emana dago, Agustín, eta ea urte anitzez gure artean izaten zaitugun; eta oraingo buru argi eta gogo bizkorrekin bada, hobe!



▲ *Ermita aurrean apezarekin batera dauden emakumeak. Olagueko koroa da, elizkizun gehienetan parte hartzen dutenak. Emakume hauen laguntza izugarri laudatzen du Agustín apezak*
 -María Jose Egozkue Huarriz (Olaguekoa)
 -Maribel Baraibar (Burutaingoa sortzez. Olagueko bizi da)
 -Reyes Perez Oiarzun (Etsaingoa)

-Ana Mari Erbiti Ruiz (Olaguekoa)
 -Agustín Elizalde Apeztegia, gaurko protagonista.
 -Kontxita Villabona (Gerendiaingoa, ezkondu ondoren Olagueko bizi da)
 -Rosa Zenotz (Zenozko alaba. Olagueko bizi da)
 -María Josefa Gurbindo Garbisu (Olaguekoa)
 -Delia Iraizotz Antzizar (Olaguekoa baina Aritzun bizi da)



Txurdan



Juan Martin Etxaide Aldaz, Eltsoko merkatari handia

Juan Martin Etxaide Aldatz mandazaina izan zen, eta bitartekari lanak egin zituen gudako bi aldeen arteko lehen karlistaldian.

1799ko azaroaren 16an jaio zen Gaskuen. Pedro Juan Etxaide Aizkorberen eta Juana Martina Aldatzen semea zen, beratsaindarra aita, ama berriz, Gelbentzukoa. Familia Gaskuen bizi izan zen urte batzuetan eta 1814an Eltsora joan zen bizitzera. Urte hartan maisu moztaila zen Pedro Juan, Eltsoko ostatuaren errentamendua lurrak barne, sei urtetarako esleitu ziotenean. Denborarekin, Pedro Juan Etxaidek Eltsoko **Perutxenea** erosi eta bertan bizitzen jarri zen.

Juan Martin Etxaide 1824ko otsailaren 6an ezkondu zen Eltson jaiotako Francisca Ignaciarekin. Ezkontza honetatik bost seme-alaba sortu ziren.

1834an emaztea zendu zitzaion, eta Juan Martin eta bere seme-alabak Bargotara joan ziren bizitzera. Bigarren ezkontza egin

zuen Francisca Zuñiga Vicenterekin, 1835eko abenduaren 25ean, eta harekin beste bost seme-alaba izan zituen.

Mandazain gisa zuen lanbideari esker, Espainiako eta Frantziako zati handi batean salerosten ibiltzen zen. "Bargotako mandazaina" bezala ezaguna izan zen.

1858. urtean Juan Martin Etxaidek Eltsoko **Perutxenea** saltzera atera zuen eta Jose Ramon Aguirrezabala Zubillaga Lizason bizi zen bailarako notarioak erosi zuen.

Data horretatik aitzina, Etxaide familiak Ultzamako haranarekin zuen harreman guztia galdu zen.

Lehen karlistaldiaren garaian Juan Martin bai armada liberalari, bai karlistari, produktuen hornitzeaz arduratzen zen, guda frontea

zeharkatuz arazorik gabe. Goi agintari militarrek ezagutzen eta estimatzen zutenez, jeneral isabeldarra zen Baldomero Esparterok harengan pentsatu zuen informazio sekretuak pasatzeko karlisten bandoko jeneralari, gerraren amaiera negoziatze aldera. Horrela, Juan Martin Etxaideren mezulari lanak, 1839ko abuztuaren 29an Oñatin (Gipuzkoa), Lehen Gerra Karlistari amaiera emango zion Bergara akordiorako lehen urratsak izan ziren.

Bakea sinatu ondoren, karlista talde garrantzitsu batek ez zuen hitzarmena onartu eta Don Karlos erregearekin batera joan zen erbestera, Frantziara. Hauentzat, Maroto eta Esparteroren arteko akordioa **Bergarako Traizioa** bezala ezagunagoa izanen zen, eta da.

Juan Martin Etxaidek, bere bizia galduko zuen beldur, Madrilera alde egin zuen bizitzera, eta han aritu zen urtetan Gorteen aurrean erreklamatzeko bere zerbitzuengatik agindu zioten ordain-saria.

Egin zizkioten promesekin nekatuta eta Bergarako Hitzarmenean berak izandako esku-hartzea desitxuratzen ari zela ikusita, hamar urtera, bere memoriak argitaratu zituen "Reseña histórica sobre los preliminares del Convenio de Bergara" izenburuarekin. Erresumako Gorteei zuzendua zegoen nahiz eta salmentan ere jarri. Bigarren edizio bat ere inprimatu zen.



Perutxene zaharra, aspaldi samar bota zuen Xerrajerok eta zimenduetatik hasita berria egin zuen.



Ez dago dokumentatua Juan Martini agindutako ordainketa ordaindu ziotenik, nahiz eta Isabel erreginak 1845ean ebazpen bat sinatu zuen berari ordaintzeko aginduarekin. Hala ere, 1849an, Juan Martinek bere memoriak idatzi zituenean, ordainketarik ez zuela jaso adierazten segitu zuen.

1858ko maiatzaren 24an hil zen, Madrilera egin zuen bidaietako batean. Juan Martin Etxaide hil eta berrogeita hemeretzi urtera, Benito Pérez Galdósek "Vergara" argitaratu zuen bere **Episodio Nazionalak** lanaren liburukietako batean. Kapitulu honetan idazleak Juan Martinen ibilerei buruzko aipamen ugari ekarri zituen. Galdósek deskribatzen duen pertsonaiak ez du Juan Martinekin antza handirik, ez dirudi "Bergarako mandazainak" idatzi zituen memoriak irakurriko zituenik. Pertsonaia pintoresko,

abenturazale eta erromantikoa bezala aurkezten du, zerikusi gutxi zuena Juan Martin Etxaide izan zenarekin.



Lourdes Iraizotz

Hiztegia

Bitartekaria: mediodor

Lehen karlistada. 1833-1840ko gerra karlista

Maisu moztailera: Maestro esquilador

Esleitu: adjudicar

Hornitu: suministrar

Goi agintaria: Autoridad Superior

Hitzarmena: Convenio, tratado

Erbestea: el extranjero

Gortea: Las Cortes



▲ Juan Bautista Etsain, Larraintzarko Perustenen semea, lehen gerran ibili zena. Carlos V.ren salbatzailea izan zen Saldias-Igoako mugan ia-ia preso erori zenean

Juan Martin kontrabando lanetan

Nafarroako Artxibo Nagusian Pedro Juan Etxaide eta bere semea zen Juan Martin Etxaideren aurkako kereila bat dago, Urritzolako Luxeneko Juan Esteban Iraizotzek 1827. urtean jarria.

Bertan aipatzen denez, Pedro Juan Etxaidek, 1827ko martxoan Urritzolako ostatuan sartu eta, Juan Esteban Iraizotz atera zuen hizpidera. Eta ostatuan zeuden lekukoek arabera Pedro Juanek bere semea kontrabandoz salatu izan egotzi zion Estebani eta horregatik preso egon zela.

Juan Esteban Iraizotzek salaketa Gelbentzuko bentan aurkeztu omen zuen Iturri izeneko guardia zibilaren aurrean; eta gehiago oraindik, Juan Estebanek 10 ontzako urre kobratu zituela bere semea salatzeagatik, eta beste 10 ontza falta zitzaizkiola kitatzeko. Hori guzia bota zuen ostatuan Pedro Juanek, denon aitzinean.

Ostatuan zeuden lekukoek erantzun zioten hori ezinezkoa zela, salaketa larunbat batean gertatu zela, eta egun horretan Juan Esteban Iraizotz Iruñera olioero joana zela, eta gainerako egunetan etxera itzultzerako gaua izaten zela.

Ez dakigu nola amaitu zen auzia, baina ziurra da guardia zibilek Juan Martin debekatutako salgaiak garraiatzen harrapatu zutela, eta horregatik preso egon zela. Hori da dakiguna.



Lourdes Iraizotz



Aneton Javi, Xabi, Ander, Jon, Iñaki eta Ander (Ezk-esk eta goitik behera)



Posets-en Ultzama eta Basaburuko gazteak



Puzgarrietan, Urritzolako bestetan



Maika Iraizoz harria jasotzen, Zenozko bestetan



Bigo-bingoa Gerendiaingo bestetan



Beuntzako bestetako mus txapelketako txapeldunak. Joxe Ziganda eta Inaxio Oartzun, eta, txapeldun ordeak: Jose Ihaben eta Vicente Azpirotz.



Urritzolako pestetan



Aritzuko Luxeneko Angel Mariñelarena eta Igoako Karakoetxeko Leontzio, URMUGA ibilaldian



Gorrontz-Olanoko bestak



Larraitzarko gazteak, bestetan



Gartzarongo pestak



Ultzamaldea zeharkatzen duen Tarraco-Oiasso bide erromatarrari buruz ikasten

Arretik dator eta Oricain, Sorauren, Olabe atzean utzi ondoren, Ostitz, Etulain, Arraitz-Orkin eta bentetatik pasatzen da, Baztanerako bidean. Juan Mari Martínez Txoperenak eta Rafael Zubiria Mujikak, Aranzadiko kideek, Nafarroan egiten duen bidea aztertu dute eta argitaratutako lana Larraintzarren aurkeztu zuten. Zubiriarekin egon gara eta Arraizko zatia arriskuan dagoela ere azaldu digu.

Galtzadak non zeharkatzen du Ultzamaldea?

Arretik dator, eta Orikain, Sorauren, Olabe, Ostitz, Etulaindik... pasatzen da Arraitz-Orkineraino.

Arraizko bentetatik gaur egungo errepidearen mendebalderantz doa. NA-1210 errepideko lehenengo kilometrotik aurrera, mendaterantz igotzen da. Kopakagaina mendiaren mendebaldeko magaletik urrutiratzen da, Odolaga bentaraino eta Bentaxarreraino jarraituz, Baztan eta Donamariako muga. Osotara 12 bat kilometro dira.

Ongi mantentzen da?

Beharbada, ibilbidearen zati honetan ikusten da garbien galtzadaren trazadura. Aldapa %5 baino txikiagoa eta zati batzuetan zortzi metroko zabalera du. 2.000 urte pasa diren arren, zorte bat da ia osorik mantendu delako. Ultzamako Udalaren eta Ultzamako Basozainen jarrera ere eskertzekoa da, duela gutxi baso esplotazio batean zuhaitzak galtzadatik ateratzea saihestu baitzuten. Baina azkeneko albisteak ez dira onak. Arraizko bentetan aurreikusten den saihebidetik, N-121-A errepidearen hobekuntza

lanetan, bete betean eragiten dio, eta trazadura hori desagertuko da. Lantzaldetik eta errota zaharretik, bentetatik behera, Oiarku arte, tunelen sarbide aurretik dagoen zonaldea hartuko du. Kaltetuko den galtzadaren trazadura 1,7 kilometrokoa da gutxi gorabehera.

Eta, ezin da hori saihesteko ezer egin? Nafarroako Gobernua honetaz jabetu al da?

Ondare arkeologikoko teknikariek behar bezala informatu dute Nafarroako Gobernua. Hortik aurrera ez dezakegu jakin zer gertatuko den. Ez legoke gaizki udalak gaiaz gehiago jakiteko interesa erakutsiko balu eta gobernuari azalpenak eskatuko balizkio.



La vía romana Tarraco-Oiasso liburua

“ Arraizko saihebidetik bete betean eragingo dio. Ultzamako trazaduraren 1'7 kilometro kaltetuko ditu ”



Zer garrantzia zuen bide honek erromatar garaian?

Estrategikoa zelako eraiki zuen Erromatar Inperioak horrelako azpiegitura handi bat. Mediterraneo eta Kantauri isurialdea lotzen zituen, baina ez hori bakarrik, Pirinioetako meatze zonaldeko metalak ateratzeko ezinbestekoa zen. Inguruko herriak ez ziren gaur egun ezagutzen ditugun bezala existitzen. Zonaldean bizi ziren baskoiak kastroen inguruan taldeetan biziko ziren eta ziur aski galtzadaren eraikuntzan lagunduko zuten. Bestetik, hori bai, bidean zehar mota guztietako zerbitzuak behar ziren, eta, horregatik, gaur egungo herri batzuek bere sorreran dute jatorria, Soraurenak eta Olguek, kasu.

Haren garrantzia gaur egun arte iraun duela esan al daiteke?

Pertsonen eta merkantzien joan-etorriak zerbitzuen agerpena eragiten du, eta, horiek aberastasuna sortu dute. Gaur egun gertatzen den bezala. Baina, beharbada, baliabide naturalen

ustiapena iraun du gehien, Lanzko meatzaritza eta Bidasoakoa, esate baterako. Kontuan izan behar dugu bide hau "Iruñetik Hondarribirako Errege bidea" izenarekin ezagutu izan dela Historian.

Galtzada horiek nolakoak ziren eta nola eraikitzen zituzten?

Ikaragarriak ziren, inoiz ikusi gabeak, miresmena eta harridura eragingo zuten. Ingeniari eta topografo erromatar handienek diseinatu eta trazatzen zituzten, teknologia oso aurrerakoa baitzuten, duela gutxi arte erabilitakoaren antzekoa. Lanen exekuzioa inperioak ordaindutako kontratistek egiten zuten normalean, eta, gehienbat, tokiko langileak erabiliz. Baina harrigarriena harkaitzetan zulatu behar zuteneko lana da. Oraindik ikusi daitezke 20 metro altuerako zehaztasun handiko ebaki finak. Xelebrea da orain arte inor konturatu ez izana Bidasoako harkaitzetan egindako ebaki hauek erromatarrek egindakoak direla.



▲ Juan Mari Martinez Txoperena galtzadaren bidea aztertzen

“Galtzada horiek ikaragarriak ziren, inoiz ikusi gabeak, miresmena eta harridura eragingo zuten”

Zergatik ez da orain arte inor ohartu?

Ezjakintasunarengatik. Begiek ezin dute ikusi garunak ezagutzen ez duena. Historian milioika pertsona pasatuko ziren errepide hauetatik, baina zerbait arrunta bezala ikusiko zuten, marka horiek guztiak nondik zetozen beren buruari galdetu gabe.

Zergatik ikasi duzue erromatar bide hau?

Antzin-antzinatik erabiltzen ziren eta autoengatik desagertzen ari ziren bideak ezagutzeko eta zeharkatzeko grina genuen. Horrela, Txoperena nire kideari ezagutzen zituen harri batzuk errebisatzea bururatu zitzaion. Mendiko bide batean zeuden, Aurizberrin, bere jaioterrian, eta erromatarrek zirela ikasi genuen. Ondorioz bide hori aztertzen hasi ginen, erromatarra zela ziurtatuta. Zangoza aldetik iparraldera igotzen zen ibilbidea deskribatu genuen, Akitaniara jaisteko Pirinioetako Ibañeta mendatea zeharkatzen zuen bidea (*“La vía de Hispania a Aquitania en el paso del Pirineo por Ibañeta”*. 2017). Lan honen emaitzarekin motibatuta Tarraco-Oiasso bideari ekitea erabaki genuen, testu klasikoetan agertzen den bidea da (*Estrabón*. 3, 4, 10), eta asko hitz egin da hari buruz, baina hipotesiak eta susmoak besterik ez ziren eskaintzen.



Galtzada erromatarra, Utzaman

Zenbat denbora ikertu duzue?

Zazpi urte gutxi gorabehera, bulegoko lana eta landa-azterketa barne.

Eta, emaitza, "La vía romana Tarraco-Oiasso en Navarra y otros caminos mineros" liburuan argitaratu da, 2022ko urtarrilean.

Nik uste dut ongi hartu dela. Gure ikerketa lana ezbaian jarri duen kritikarik ez da egon eta hori ona da. Are gehiago kontuan izaten badugu gu ez gara mundu akademikoaren parte. Horrek erakusten du afizioarekin eta esfortzuekin ekarpen interesgarriak egin daitezkeela.

Galtzadaren aztarnak ▼



Prologoan, Isaac Moreno Gallok landa-azterketa hori nabarmentzen du. Nolakoa izan da?

Denbora asko eskaini genion lekuan bertako lur eremuaren azterketari, tokira egin genituen irteera askorekin, lurraldea oinez ezagutzen. Guk aurkitutako aztarnak erromatar ingeniariak galtzaden eraikuntzan erabiltzen zituzten parametroekin bat egiten zutela baieztatu nahi genuen; eta, aldi berean, beste aukera batzuk baztertu.



Urdinez, galtzadak egiten duen bidea ▲

“ Gaur egungo herri batzuek galtzadaren sorreran dute jatorria, Olaguek, kasu ”

Larraintzarko aurkezpena zer moduz joan zen?

Ongi, kontuan izanda herritarren gehiengoak ez duela interesik gai hauetan. Bertan ondare hori ezagutaraztearen garrantzia aipatu zen, ezagutzen ez bada, zaila izanen da baloratzea eta zaintzea.



Urdinez, galtzada erromatarra. ▲



PSN: errespetua zor diguzu

Iruñeko ostatu batean, Aranzeta deituan bazkaltzen nuen eta bazkaltzen dut noizbehinka. Etxekoandre erdalduna adiskidea nuen eta egun batean hala esan nion erdaraz:

-Aizu, ez dakit badakizun, baina Aranzeta izena ez da ofiziala, AranTzeta da, t-rekin, eta gainera euskaldunok hala esaten dugu.

-Bai, baina, badakizu? Aranzeta t-rekin idazteak markatzen zaitu (kalterako markatzen duela, esan nahi zuen)

-Ahhh –ez nion besterik esan, zertarako eztabaida antzu horretan sar?

Urte bakar batzuen ondoren, jubilatuta zela eta beste emakume bati pasatu zion ostatua. Oraingo hau, Bortzirietako euskalduna, konplexurik gabekoa, lasaia eta ausarta.

Ez dakit zer politiketakoa den, zer pentsatzen duen, nori ematen dion botoa. Ideiarik ere ez. Baina, esan dudana bezala, euskaraz aritzen da lasai ederrean, bere ahots zoliarekin. Hara sartzen den guziak berehala ikasiko du etxekoandrea euskaldun aktiboa bat dela.

Bai, Iruñean, horrelako jarrera batek markatzen du zenbait jenderen artean, dudarik gabe. Eta, hortaz, klientelan aldaketa izan da, euskaldun askoz gehiago etortzen baita orain. Eta, inportantea, orokorrean, lehen baino jende gehiago ibiltzen da. Frankoz gehiago.

Errespetua irabazi du.

Azkeneko hauteskunde aitzinean, PSOEren gutun bat hartu nuen “Adelante.España avanza” lelopean. Dena erdaraz, lehen orrian, atzeko aldea euskarazko itzulpenik gabe, zurian. Tokia aprobetxatu gabe eta euskaldunoi zor zaigun errespetu ttikienik gabe.

Es que poner en euskara marca esanen dute. Baina, erdaraz soilik ateratzeak ez ote du markatzen?

Euskaldun asko ez da ohartzen dirudienez botoa ematerakoan. Errespetu gutxi erakutsi digun partidu honek ere boto asko atera du gure alderdian. Zergatik?

Eskean datorrenak, nornahi izanda ere, lehen gauza bete behar duena, errespetua azaltzea izan beharko luke. Eta emaileari errespetua ez bazaio, esku huts joan beharko

luke eskatzailea, baina gurean ez da hori gertatzen: botoak biltzen ditu. Edo errespetua guk galdu ote dugu?

Errespetua eskatu ezazu, hori da gutxienik eska dezakeguna eta errespetatuko gaituzte, AranTzeta ostatuko etxekoandrea errespetatzen duten bezala.

Ardo ozpindu gehiegitxo edan izan dugu, ozpin hutsa edan ez dugunean. Ardo frexko bikaina dugu behar eta ez dugu erraza topatzen. Hala ere, partidu politiko guziak ez dira berdinak, aldeak eta aldeak daude. Guri dagokigu ardo on-ona ez bada ere, gutxienez, ardo edangarri bat opatzea. Eta errespetua ez digutenak popatik hartzera bidaltzea!



Txurdan

Hiztegia

Bortziriak: Sunbilla, Aranatz, Igantzi, Etxalar eta Bera herrialdea.

Zolia: ozena edo txintxo.

Euskaldun aktiboa: euskaraz lotsarik gabe nonahi ari dena.

Jarrera: disposición.


Orokorrean: jeneralean

Gutuna: karta

Leloa: Kasu honetan “lema” esan nahi du.

Dagokigun: tokatzen zaigun

Popatik hartu: erdaraz, “tomar por c.lo”



▲ Kanpoko hizkuntzan den-dena



Aizaroztik Igoara eta Gartzarondik Etxalekura

Egunon, irakurle! Zer moduz uda? Uda ona izan bada, udazkena hobea izanen da. Eta hortaz, alai eta irrifartsu nator gaurkoan udazken egun gozoen esperoan, kontu polit batzuekin. Ez dadila inor haserretu. Eta alde zuretik barkatu gaizki esanak!

Aizarotzen ugaldia gainezka.

Aizarotzen izan zen, bai gerra aurrean eta bai gerra ondoan, zerrategi handi samar bat, Ronkal zenak egina.

Gerra ondorean zerrategia beren gain hartu zuteen kanpotar hauek: **Zia motxa** esaten ziotena, Joaquín Zia Etxenike, Lizasoko **Iturraldeko** semea eta Aizarotzen, **Errotan** bizitu zena, eta Alvaro Gorostidi Lasheras, Lanzko **Zurginien etxekoa** eta **Tomasen etxean** edo **Etxeturin** bizitu zena bere familiarekin.

Zia motxak, uharratea izan eta laster, Urritzako **Patxi Errotta (Fco. Unanua)** deitzen zutenarekin kisuskilarekin topo egin eta hizketan hasi eta esan omen zion.

-Ikiarritzko urek Aizaotzen, ikiarritzko urek!

-Zenbatekoak ba?

-Ne gerrira añekoak.

-E'itun ordun oso haundik!

Alegia, **Zia motxa** deitzen zutena oso motxa baitzen, metro eta erditik gutxiz gehiagokoa zen eta! Hori bai, uharratea handia izan omen zen, benetan, zerrategiko makinaria guzua ere estali omen zuen eta! Pentsa, zerrategia ugaldetik gorasko zegoen gero!

Galtzak erostea Etxalekutik Tolosara

Aipatu dugun uharrate hori 1953ko urriaren 4an izan zen.

Eta Gipuzkoa aldean izugarritzko kalteak egin zituen. Tolosan, Oria ugaldia askotan egin izan du gainezka, baina orduan adinako uharraterik ez omen da izan. Kalteak ikaragarriak, bertako komertzio, tailer eta bazter guziak urpean gelditu omen ziren.

Jakina, garai hartan ez zen orain bezala, eta ahal zen guzua aprobetxatu behar izaten zen, jendea beharretan izaten zen eta kaltetutako merkantzia ere saltzera atera zuten.

Etxalekutik ere joan omen ziren neskatxak kaltetutako arropa erostera prezio onean; eta hara zer ateraldi ibili zen herriko mutilen hizketetan eta txantxa esaldietan,

neskatxek erosi galtzak zirela eta:

Medias de Tolosa,

Que llegan hasta la cosa.

Jendea ezagututa ez dago luze pentsatzen ari beharrik esaera hori nondik atera zen: Jose Astitz, bordakoa, behar du izan horren asmatzailea.

Bordako Joseren atte Agustin zeritzan eta erdalduna zen, nahiz euskaraz ere moldatzen zen, baina oso baldar. Eta bordakoak, alde batetik, herrikoak ez bezala, erdaraz ongi zekiten eta gainera, horrelako trastekeria erdaraz nork asmatuko zuen ba? Joxek, gero Hernanin eta Ormaiztegin fundiziotan lanean leher egindakoa



▲ Etxalekuko plaza. Honi itsatsia dagoen Txurdean jaio zen Jose Astiz. 1948an edo Marimigeleneko bordara joan zen familia guzua.



eta herri horietako ostatuetan nahiko txikito edandakoa. Erretiroa hartu eta Gartzarongo **Yoandartzeanean** luze bizitu zen gure Joxe Astitz Larraintzar, bertan baitzuen arreba Victoriana ezkondua.

Berueteko Txokolateroren pilota partida Gartzaronen

Ia inork ere ez daki, baina badakizu lehen sakea libre izaten zela? Sakatzailearen esku izaten zela? Honek nonahitik sakatu zezakeen, nahi zuen tokitik. Askotan txaparen kontra-kontratik sakatzen zen eta sakea eramatea ez zen batere lan erraza. Ez horixe, zirriztan ateratzen baitzen pilota!

Sakeak gaiztoak ziren, zinez, baita batzuen ahoa ere. Gaiztoa eta zikina izaten zen. Zorionez, gure alderdian aho zikineko gutxi izan da. Horietako bat, Berueteko **Joantzarneko** Angel Zubiri, amerikanoa eta pilotari famatua, **Txokolatero** ezizenez ezagunagoa.

Gartzaronen pestak omen ziren eta pilota partida jarri omen zuten. Binaka zen partida eta aurrean **Yurdan** (Juan Satrustegi)

herriko pilotaria. Kontra Berueteko **Txokolatero**, pilotari eta jokatzaile ezaguna. Urteetan sartua ordurako eta Yurdan, gazte-gaztea. Lagunak nor zituzten ez dakigu.

Herri guzia eta gehiago partida ikusten, izugarritzko jendeketa eta ikusleen artean, Don Pedro, herriko apeza, zahartuxe.

Txokolatero aho gaiztokoa, huts egiten zuenean kaguendios esateko ohitura. Jendea adi-adi. Eta ari dira pilotan eta Txokolaterok huts. Huts bai, baina historik ere ez omen zuen egin. Harrigarria!

Handik laster, berriz ere huts, oraindik handiagoa, eta apeza beldur oraingoan botako zuenarekin, eta bi eskuez belarriak tapatu.

Eta Txokolaterok zerura begira, oihuka:

-Bendita la madre de Dios!

Haiek karkailak, haiek karkailak jendeak! Gehiago, jakina, apeza horrela ikusiz bi belarriak tapaturik!

Eta apezak aditu ez zer esan zuen Txokolaterok!

Arrantxeroak eta pintxeak

Oihanetako lanetan, lantegietan aritzen ziren langile taldeak arrantxero bat izaten zuten eta askotan pintxe bat ere bai.

Miguel Goñiri orain gutxi egin nion elkarrizketan (Pulunpe 230 eta 231) kontatzen zuen nola 11 urtetan joan zen lantegira, arrantxero. Haurretan hasi zela lanean esan dezakegu, eta ni harritu ere harritu nintzen. Ba, gero ikusi dut, harrigarria bai, baina ez hain-hain harrigarria. Igoar batekin hizketan, aipatu zidan Igoan ere izan zirela gaxte-gaxte langintza horretan aritutakoak. Hona nor ziren:

Joaquin Uharte Altsua, **Karakoetxekoa** 11 urtetan joan zen arrantxero. Eta Julian Arregi Lasarte, **Matxineberrikoa**, berriz, 12 urtetan hasi zen lan horretan.



Txurdan

Oharra:

Aizarozko **Zia motxa** ezagutu dugu gaur. Eta Aizarotzen ere bada motxa beharrean luzea ere: orain ere **Luzian borda** esaten zaio borda bati. **Luzearen borda**, alegia. XIX eta XX. mendearen artean bertan bizi zena, Patricio Iturralde Mariezkurrena (1880) oso luzea zen eta hortaz izena. Orain, erdarari men, altua eta baxoa entzuten da. Euskara jatorrean jendea luzea edo motxa izaten da eta ez altua edo baxoa.

Hiztegia

Ugaldea: Herri bateko ibai printzipala

Uharratea: uholdea edo inundación (Gure hitza da, hiztegian ez datorrena)

Gorasko: oso gora. Edo, aski gora, beste batzuetan.

Aho zikina: mal hablado

Histia: imintzioa

Lantegia: Hemen oihan ateratzeari esaten zitzaien, tokiari eta langintzari.



▲ Gartzarongo oraingo pilotalekua. Lehenagoko botaia da. Maiatza ageri den horretan zen zaharra, oraingo plazari bertikalki, noski.

Etsaingo Tomasa Oiartzunen oroimenez

Uda amaiera zen, duela 25 urte. Nik hilabete batzuk neramatzan lanean, gure zonaldean, albaitari. Igande batean, Etsaingo **Tejedor** etxetik deitu zuten: behi bat haizatua (tripa airez beteta) zutela eta joateko lehen baino lehen, posible balitz.

Iritsi ginenean, Tomasa, etxeoandrea, kanpoan aurkitu genuen gure zain.

Gibeleko ikuilura eraman gintuen. Han bere semeak, suhia, bilobak eta auzokide on bat topatu genituen, behiari begira. Ederra zen, lerdena, gorrixka, adarzabal. Baino hagitz larri zegoen, gaixoa: sabela airez beteta, lehertzeko punttuan; xialdoka zebilen, zutik ezin egonez; listua arraka ahotik; begirada galdua eta marru triste bat, tarteka, azkeneko hatsa

zirudiena. Ez genuen astirik. Hiltzen ez uzteko, beharrezkoa hartu eta segituan, tripako ezkeraldean, ebaki txiki bat egin nion larruan. Hortik azurra (punzoi) bat sartu genion sabeleraino. Airea poliki-poliki atera zen, gure zaintzapean, hustu arte, eta hantxe utzi genuen azurra (punzoi moduko bat), larrura itxekita.

Horrela behia arindu zen pixko bat eta horrek denbora ematen zigun arazoa non zegoen asmatzeko eta, baliteke, zuzentzeko.

Ahotik hasi ginen gure bilaketa. Lagunduta, ireki nion eta argi batekin barrualdea birpasatzen hasi nintzen. Horra! nahiko urrun, zintzurrean bertan, sagar bat ikusten zen. Trabatuta zegoen, kanpora ezin itzuliz, barrura ezin irentsiz.

Garai horretan nik ez nuen behar bezalako tramankulurik, behiaren ahoa irekia kontzeko (eusteko) eta eskua horrelaxe sartzea oso arriskutsua zen, ziur aski hozka egingo baitzigun. Pentsakor geratu nintzen...

-Zer behar duzu? -galdetu zidaten etxeo mutilek- zerbait prestatuko dugu...

Zer nahi nuen azalduta, lanera jarri ziren. Bilobek, txintxo eta erne begiratzen zieten, ikasi nahian.

Bitartean, hortxe zegoen Tomasa, aparte xamar, oztoporik ez egiteko baino laguntzeko prest. Bere begi bixietan itxaropena ikusten zen; irribarre lotsati horretan, ziurtasuna: horrelako jende taldea elkarrekin lanean, bazen berez gauza on bat, handia, harrotzeko modukoa.

Horrela jarraitu zen, isil-isilik, esku bat bestearen gainean, behiaren alde otoitzean, ziur nago. Eta ez zen alperrik izan. Ni ohartu orduko mutil horiek bere tresna bukatua zeukaten. Plastikozko hodi bat burdinezko hagatxo batez inguratuta, indartzeko. Kirdena





eta guzti atera zioten, hobeki kontzeko.

Berrero, behiarengana joan ginen. Bi lagunaren artean ahoa ireki zioten, beste batek mingaina baztertu zion eta gainerakoek, kontu handiz, tutua sartu genion, luzetara, ahal bezain sakon. Bere neurrirako egina zirudien: horiek artisau trebeak!

Orduan bai, arriskurik gabe, eskua eta besoa tutuaren barrutik sartuz, sagarra ukimenez kokatzea lortu nuen eta pazientziarekin hartu eta kanpora atera nuen. Behia aske utzi genuen, bere gisa eta itsura aldatu zitzaion berehalaxe: sabeleko airea ahotik botatzen hasi zen, listua irensten, soinu triste hori ez zen entzuten eta begirada lasaitua guregana zuzendu zen, eskertua bezala.

-Egina da! lortu dugu! erran genuen, elkar zorionduz.

-Zer pena izango zen horrelako animalia, modu horretan galtzea...!

Hala ere, gauza batez ohartu

nintzen: sabeleko azurra han utzi nuela, kendu behar genion lana bukatzeko. Nire barruan arront pozik eta sobera konfiatua ondoratu nintzen bakarrik, eta ukitzerakoan, behiak, ostiko batez, bere ondotikan lekutu ninduen, lurrera botaz.

Denok, ikaratuta, laguntzera hurbildu ziren, baino zorionez, ez nuen min handirik hartu ezta ondoriorik izan. Hori bai: zalantza baldin bazen, gure pirenaika berrero sasoiari zegoela ikasi genuen.

Lanabesak biltzen eta garbitzen hasi nintzen.

-Tori hau zuretako, berriz ere erabiltzeko- erran zidaten, egindako tresna hori, patentatzeko modukoa, eskainiz. Horrela egin nuen: kotxean gorde, eta, horrekin batera, egun ahaztezin horren oroitzapena.

Tomasak, bere partez, ez zekien nola eskertu denoi egindako lana. Guretzat, berriz, bere aurpegi alaia ikustea, pozaz gainezka, behia hausnarrean hasi zen bitartean, hori zen saririk handiena.

Egia erran, nire lankideak bezala, beti etortzen nintzen gustura emakume honen etxera, baina egun horretatik aurrera, gure harremana lotuta geratu zen betirako, sakonagoa, bereziagoa bihurtu zen.

Denbora pasa zen eta urteetan zehar bizipen politak partekatzeak aukera izan genuen. Baita oso latzak ere. Beti ongi etorria sentitu nintzen bere ondora, transmititzen zuten osotasuna eta bakea estimatuz.

Hainbat aldiz elkar bidaltzen genuen goraintziak, familiako norbaiten bidez. Noizbehinka Etsainen, Olaguen edo beste leku batean suertatzen ginen elkar.



▲ Behiak zintzurrean trabatuta zuen sagarra ateratzeko etxekoek egin zuten tresna

“ Horrelako jende taldea elkarrekin lanean aritzea gauza handia zen, harrotzekoa ”

Hizketa goxoan aritzen ginen, denari buruz solasean eta, aldiro, berak, egun berezi horretako gertakizuna, bere behia eta sagarra aipatzen zituen.

Aurtengo udaberriari, igande batean ere, gure ondotikan joan zara, Tomasa, baino ez guztiz. Bide luze horretan, zure egunak eta ondokoenak bizitzaz betetzeko gai izan zara.

Alaia, arronta, jatorra, ausarta, eskuzabala, eskertua... zoragarria.

Balio handiko ondasunak utzi dizkiguzu, beraien artean, zure etxeko atea zabal zabalik.

Berriz ere, Etsaingo **Tejedor** etxera gustura etorriko naiz. Eta sartzetakoan, zure pauso arin-arina, eskailerak jaisten, nire burura itzuliko da. Ondoren, agur bero bat, irribarrez, besarkada estu batekin. Gero, doinu atsegin horretan, zure betiko galderak: -zer moduz zaudete? aita? ama? etxeko guztiok? Eta lankideak, denok ongi?

Azkenean, nola ez, borobiltzeko: -eta behia? sagarraren behia? oroitzen zara?-

Bai, Tomasa, nola atzendu hori! Dirudienez, pirenaika eder hura zure bizitzako behia izan da. Nire bizitzakoa ere bai.



Luis Mariñelarena Saralegi



Aitor Etxarri Ripalda: “Borrokatzeak aurkariari lotzen zaitu”

Berueteko Aitor eta Mattin Etxarri Ripalda anaiak kick boxingean aritzen dira. Gehiengoak pentsa dezakeenaren kontra, errespetu handiko kirola dela eta ekar ditzazkeen onurak defendatzen dituzte.

Arrarasbiden, haien etxean, bildu gara Aitor eta Mattin Etxarri Ripaldarekin. Aita Beruetekoa eta ama Arraraskoa dute. Aitor, anaia zaharra, hasi zen lehenengo boxeoa, duela lau urte. Orain 21 ditu; eta Mattinek 15 ditu eta duela bi jarraitu zituen anaiaren pausuak. Boxeoa lehenengo, tartean Gasteizen ere entrenatu du eta orain kick boxingean aritzen da Aitor. Aurretik segan aritutako Mattin modalitate horretan hasi zen zuzenean. Gaur, biak Irurtzunen entrenatzen dute. Paradojikoa badirudi ere, aurkariari lotzen zaituela azaldu digu Aitorrek; begi bistan da bi anaiak ere asko lotu dituen kirola dela.

Aitor, zu nola hasi zinen boxeoa?

Bideoak ikusten nituen, baina ez nintzen ausartzen apuntatzera. Egun batean amari esan nion, eta urte horretan, ez, baina denborarekin konbentzitzen ibili nintzen, eta azkenean apuntatu nintzen, nik uste ni entzuteaz nekatu zelako (barreak).

Mattin, eta zu, Anaiak bidea erraztuta, ezta? (barreak)

Mattin: Bai (barreak).

Aitor: Gainera, nik erosi nizkion eskularruak.

Ama konbentzitu behar izan zenuela diozu, Aitor, boxeoa estigmatizatuta dagoela uste duzu?

Bai, bai. Boxeoa egiten duzula esaten duzunean, gaizkilea zarela ematen du. Eta, gero, ez du horrekin zerikusirik, pentsatzen denaren oso ezberdina da.

Erasokorra dela uste da?

Bai, eta ulertzekoa da, azken finean beste bat jotzen ari zara. Baina errespetua oso handia da boxeoa.

Aurkariarekin ere bai?

Aitor: Bai, laguntasun handia dago, baita Aurkariarekin ere. Bukatzen duzunean besarkada bat ematen diogu elkar eta, askotan, tarte bat hizketan ere ematen dugu.

Mattin: Baita bere entrenatzailearekin ere.

Aitor: Ez da derrigorrezkoa den ezer, baina guztiok egiten dugu, idatzi gabeko arauak balira.

Hasi aurretik, Aitor, beldurra ere ematen al zizun?

Bai, bai. Asko. Hasieran uste duzu kolpeak jaso eta etxera joanen zarela, beste ezertarako aukerarik gabe, eta, horrela, egunero, ikasi arte. Baina ez da horrela. Zuk jar ditzakezu mugak, noiz jo nahi



Aitor Etxarri (ezk) erakustaldian ▲



duzun, noiz ez, noiz hasi nahi duzun beste norbaiten kontra... Badago denbora asko daramana eta oraindik inorekin aritu ez dena, zakuarekin bakarrik aritzen dena. Norberaren erabakia da.

Zuri, Mattin, anaiari ikusiz sartu zitzaizkizun gogoak?

Bai, boxeoa ikusten nuen, eta franko gustatzen zitzaidan, baina gehiago mugitu nahi nuen eta Irurtzunen kick boxingean apuntatu nintzen.

Orokorrean segurtasunerako tresnak badituzue, ezta? Min handia ez hartzeko.

Aitor: Bai, eskularruak, zango-babesak, ahokoa eta kaskoa. Badago petoa ere jartzen duena, tripan kolpe handirik ez jasotzeko.

Arauk ere izanen dituzue...

Aitor: Bai. Belarrietatik atzerantz ezin da jo, belaunetan ere ez, bizkarrean ere ezin da jo, bestea erortzen denean ezin diozu lurrean dagoenean jo, ...

Mattin: Ezin duzu bestea eutsi... arau asko daude.

Eta, noski, kalean guztiz debekatuta duzue edozer gauza erabiltzea.

Aitor: Ezin dugu inolaz ere erabili. Ez zitzaigun bururatuko ere. Baina asko errepikatzen diguten zerbait da. Bestetik, bada boxeoa eta kick boxingean izena emateagatik kalean jotzeari utzi dion jendea. Kalean teknika erabili nahi duenak apuntatzen dela eman dezake, baina kontrakoa izaten da.

Frustrazioa askatzeko edo barrena husteko ere balio dezakeelako?

Aitor: Bai. Egun txarra izan baduzu asko laguntzen du, beste edozein kirol bezala. Korrika egitera bazoaz edo mendira bazoaz, nekatzeak laguntzen du. Gustatzen zaidana da, batez ere, sentsazioa da, kirol honen inguruan dagoen hori guztia. Azkenean beste norbaitekin borrokatzeak beste pertsona horri lotzen zaitu.

Mattin: Bai, niri orokorrean kirola gustatzen zait. Eta hau, zehazki, asko gustatzen zait.

Aitor: Nahiko "frikiak" gara, bai (barreak), egun guztia honetan pentsatzen ematen dugu!

“ Bada boxeoa aritzeagatik kalean jotzeari utzi dion jendea ”

Orain, gainera, biok batera...

Aitor: Amak ez daki zer egin! (barreak).

Mattin: Beti gaude ostikadak airera botatzen! (barreak).

Modan al dago?

Aitor: Bai, bai, geroz eta gehiago. Ni hasi nintzenean ia inork ez zuen egiten, eta lau urte besterik ez dira pasa. Orain mundu guztiak probatu du, joan da klaseren batetara ...

Mattin: Edo bidean ikusten du, edo aritzen den ezagunen bat du ...

Irudia ere aldatzen ari da, beharbada?

Aitor: Bai, asko. Duela gutxi gure osaba-izeba etorri ziren ikustera ...

Mattin: Eta pentsatzeko modua aldatu zitzaien, guztiz.

Aitor: Makarrada bat zela uste zuten, denok odoletan bukatuko ginela, eta dagoen errespetu handia ikusi zuten, giro polita ere.

Txapelketaren bat edo izan zen?

Aitor: Erakustaldiak izaten dira, beste klub batzuekin harremanetan jartzeko. Txapelketetara iristea zailagoa da.

Gustatuko litzaizueke?

Biok batera: Bai, bai!



▲ *Bianaiak*



... eta udan, webgunean, zer?

Jakinen duzue udan Esan Erran irratia oporrak ematen dizkiogula hilabete pare batez, eta Pulunpe aldizkariak ere deskantsutxo hartu duela eta uztailean ez dela alerik izan. Gure agerkari digitalean, ordea, ez da oporrik izan! Atal honetan udako hilabeteotan amezti.eus-era igotako zenbait eduki jaso ditugu

Egunerokotasunari lotuak egon ohi dira komunikabideen interneteko guneak, eta eskualdeko albisteen

erritmoa lasaiagoa bada ere, egon da zer kontatua uztailean eta abuztuaren amezti.eus-en. Eta zein

izan da udako notizia ohikoena gurean? Bada, ezin zuen bestela izan... pestak.

Herrietako pestak

Zalantzarik gabe, herrietako pestak izan ditugu uda honetako protagonista amezti.eus agerkarian. Izan ere, zazpi udalerritako bailara da gurea, eta udalerrri horietako zenbaitetan hamarnaka herri daude, beraz, pesta ugari ospatzen dira udako hilabeteotan. Uztailean zehar eta abuztu hasieran izan dira, esaterako, Oskozko pestak, Zenozkoak, Larraintzarkoak, Latasakoak, Gerendiangoak, Orokietakoak, Beuntzakoak,

Urritzolakoak, Gartzarongoak, Erasokoak... eta, horretaz gain, Atetzen eta Anuen bailarako

egunak ere ospatu dira; uztailaren 29an lehena, eta abuztuaren 4an eta 5ean bigarrena.



Erasoko festak ospatuko dira ostiraletik igandera

Amezti.eus-eko ID: 10072
Abuztuaren 18tik 20ra izanen dira bertan Erasoko festak, eta egitarau ederrekin prestatu dituzte herritarrek antzezura osotako. Ostiraletan, herri krosaren VII. edizioarekin etanzen dute hasiera festak.



Urritzola eta Almandozen arteko herri kirol apostua, pestetan

Amezti.eus-eko ID: 107288
Urritzolako beste izanen dira abuztuaren ostrik 29era, eta egitarau ederrekin prestatu dute herritarrek. Tartean, abuztuaren 29an, larunbatarerain, herri kirol apostua izanen da: Urritzolako eta Almandozko herriak aurkeztu izanen dira. Arriakaldeko 187-200an izanen da proba, Urritzolako plazan.

Esan Erraneko spot-a eta katiluak

Bai, honezkero badakizue Esan Erran irratia 25. urteurrenean murgilduta dabilela, eta hainbat ekimen berezi egiten direla horren harira. Bada, amezti.eus-en duzue ikusgai urteurrenaren bueltan sortu dugun bideo edo spot-a... zer kontatzen den

bideo horretan? Laburbilduz, esanen dugu Esan Erran irratia ilargira joan dela urteurren honetan! Bai, bai, ongi irakurri duzu... ILARGIRA! Ikusi bideo barregarria ondoko QRan klik eginda.

Eta spot-az gain, irratiarekin lotutako beste nobedade bat ere badugu esku artean, amezti.eus-en argitaratu dugunez. Esan Erran irratiko katiluak atera ditugu! Begiratu zein politak gelditu diren... katiluak zein tokitan eskuratu daitezkeen topatuko duzue amezti.eus-en. Webgunearen goiko botoietan erantsi dugun 'Esan Erranek 25 urte' botoi berezian topatuko dituzue urteurrenarekin lotutako eduki guztiak!



Spot-a ikusteko QRa





Pulunpeko edukiak erreportaje forman



◀ Pulunpeko
edukietara QRa

2018. urtetik aurrerako Pulunpe aldizkari guztiak ikusgai daude amezti.eus webgunean, PDF formatuan, eta deskargatu ere egin daitezke bertatik. Udan zehar, gainera, azken Pulunpe aldizkariko zenbait elkarrizketa eta erreportaje ere ekarri ditugu amezti.eus-era, esate baterako, Pello Etxeberria Lanzko ostalariari eta Kepa Mateorena Oihanzabal eskolako zuzendari ohiari egindako elkarrizketak. 'Pulunpeko edukiak' izeneko webguneko atalean jasotzen ditugu aldizkaritik ekarritako elkarrizketa eta erreportaje horiek.



Zorionak Zorionak !



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

2023ko ekaina

2023ko ekainean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ULTZAMA Larraitzar

Aiur Dorai Mendibe, Larraitzarren sortua ekainaren 26an. Asier eta Yaizaren semea.



▲ *Inaxio Gaskue birraitaitxi bere biloba Aiur altzoan duela*

“ Zorionak gurasoei ”

“ zorionak ezkonberriei ”

Ezkontzak:

ULTZAMA Auza

Lander Landiribar Goienetxe eta Amaia Iribarren Iribar, Urritzola eta Auzakoa, hurrenez hurren, 2023ko ekainaren 24an ezkondu ziren. Auzan biziko dira.



▲ *Lander Landiribar-Amaia Iribarren*

Lizaso

Beñat Estanga Elizondo, Lizasoko Antsonekoa eta Andrea Csikosova, Eslovakiakoa, ekainaren 10ean ezkondu ziren.



▲ *Estanga-Csikosova, Lizason*

Urritzola

Daniel Eritze Zia eta Haizea Rekalde del Rio, Urritzola-Galaingoak, ekainaren 2an ezkondu ziren.



▲ *Haizea Rekalde eta Daniel Eritze*

Heriotzak:

ANUE Olague

Gregorio Irurita Labaien, ekainaren 16an hil zen, 80 urtetan.



▲ *Goio Irurita*

BASABURUA Arrarats

Miguel Barberia Iturralde, Zelaieko etxetxoko nagusia, ekainaren 18an hil zen, 82 urtetan.

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

ULTZAMA Larraitzar

Andres Rekalde Ostitz, ekainaren 24an hil zen, 90 urtetan.



▲ *Andres Rekalde*



2023ko uztaila

2023ko uztailean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ULTZAMA

Peio Etxeberria Diez de Ultzurrun, uztailearen 19an sortu zen. Gurasoak: Peio eta Uxua.



▲ Peio ttikia, pilota gustatzen omen zaio

Gure kolaboratzailea den Nora ama izan da

Gure kolaboratzailea den Nora Ramoneda Arregi, -Ilarregi-Igoakoa- berriki ama izan da. Ekainaren 3an izan zuen haurra: Aner Beratsain Ramoneda. Aita ere Auzarra dugu: Asier Beratsain. Hemendik zorion amultsua guraso berriei eta ongi etorri Euskal Herri ttiki honetara mutikoari.



Ezkontzak:

Guk dakigula, uztailean ez zen ezkontzarik izan.

Heriotzak:

BASABURUA Erbiti

Jose Maria Jaunarena Ezkurra, **Palazioko** nagusia, uztailearen 2an hil zen, 81 urtetan.



▲ Joxe Mari Jaunarena

ULTZAMA Iraizotz-Eltzaburu

Inaxi Narbaetz Etsain, Eltzaburuko Errekaldeko alaba, uztailearen 24an hil zen, 60 urtetan



▲ Inaxi Narbaetz

Alkotz

Juan Jose Beuntza Urritza, Alkozko Lakarneko semea, uztailearen 18an hil zen 77 urtetan.



▲ Juan Jose Beunza

“ Zorionak gurasoei ” “ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”



Nobedade interesgarriak datoz, euskaraz

Abuztu bukaeran ari gara alea ixten, eta, Ultzamako liburutegia oraindik oporretan dugu (ongi merezitat gainera!). Horregatik, gure liburuzainarengana jo ordez, Karrikirira, Iruñeko euskaldunon topagunera, jo dugu oraingo honetan. Eta, ikasturte berrian literatur proposamen interesgarriak datoz.

Belarriko kilkerra, Elkar

Irailaren 19an argitaratuko da

Egilea: Uxue Alberdi

Ilustrazioak: Begoña Durruty

«Ahoz kontatu eta belarriz jasotako testuak dira. Norbaitek apartatu ditu eguneroko bizitzako gertakari-sailetik eta gorde ditu memoriaren kaiolatxoan. Min edo ditxa zirelako, gogoratzea merezi zuten. Akorduan hartu zituenak ez zituen beretzat gorde, ordea, eta, aldian-aldian, lagunen konpainia noblean, ahora ekarri izan ditu txitean-pitean».



Oso latza izan da, Elkar

Irailaren 1ean argitaratu da

Egilea: Xabier Mendiguren Elizegi

«Joxe Arregiri, hil ostean, Zizurkilgo hilerrian ezkutuan egin zizkioten argazkien historia berreraikitzen du nobela labur honek, han protagonista izan ziren hiru lagunen bizitzak aletzen: Joxe Arregi bera, Bixente Ameztoi pintorea eta Juan Kruz Unzurrunzaga ekintzaile eta arte-promotorea».



Barbaro iraun beharraz, Txalaparta

Urriaren 3an argitaratuko da

Egilea: Louisa Yousfi

Itzulpena: Itziar Diez de Ultzurrun Sagalá

«Sumatzen dut hainbeste gauza ditudala esateko non hobe baita ez nadin oso ikasia izan. Barbarotasun gisako bat gorde behar dut, barbaro iraun behar dut». Kateb Yacine aljeriar idazlearen aipu hori formula magiko modura ulertzen du Louisa Yousfi kazetari eta aktibistak: aldi berean eslogan estetiko eta alegia politikotzat. Ikuspegi horrek aukera ematen dio manifestu politiko eta literario honetan Chester Himes eta Toni Morrison idazleak, Booba eta PNL rap musikariak eta inperioari aurre egin dioten beste norbanako basatu batzuk elkarrizketan jartzeko, domestikazio mendebaldar zibilizatzailearen aurka. Mugimendu kolektibo antirrazista eta dekolonialaren baitan kokatzen baita liburuxka hau; zehazki, autorearen hitzetan: «politikaren bidez ulertu nuen ez gaudela kondenatuak gure leku txikia lotsaz negoziatzera beste barbaro batzuen bizkar, baizik eta gure esku dagoela arbasoek hasitako duintasunaren aldeko borrokari jarraipena nola eman pentsatzea».

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Esan Erran
IRRATIA
107.9 FM

25.
URTEURRENA

URRIAK 7, LARUNBATA BERTSO SAIO MUSIKATUA



Santurbeko baselizan, Gaskuen (Odieta)
Eguerdiko 12:00etan

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Julio Soto

Musikariak: Gari Otamendi eta Ixak Arruti

Gai jartzailea: Iñigo Ibarra

**Oharrak:*

- Baselizatik metro gutxira dauden aparkalekuetaraino autoz igotzeko aukera egonen da, baina Gaskuetik oinez igotzeko bi kilometroko paseoa ere ederra da.
- Eguraldi onarekin, baselizaren kanpoko belatsoetan izanen da saioa; euria egiten bada, berriz, barruan.
- Sarrera doakoa izanen da. Saioa baselizaren barruan bada, aforoa mugatua izanen da (eserlekuak bete arte).
- Pintxoak eta edari freskoak egonen dira salgai.



ANUE



ATEZ



BASABURUA



IMOTZ



LANTZ



ODIETA



ULTZAMA